

Ebaluazio proba

a

b

Gipuzkoan 60 tona janari bildu dira; Hernanin, 3.000 kilo. Euskal Karabana bihar abiatuko da Saharara, 10:00etan Donostiatik. Ondoren, Hassanna Aaliaren aldeko kontzentrazioa egingo da.

Donostiako Zurriolatik aterako dira bihar, goizeko 10:00etan, Saharako kanpamentuetara 60 tona janari eramango dituzten 5 trailer, hiru kamioi eta beste bi garraiobide.

Janari hori guztia Gipuzkoan bildu da; horietatik, 3.000 kilo Hernanin, iaz baino gutxiago. Hala ere, antolatzaileak pozik eta eskertuta agertu dira «Saharako herritarrekiko erakutsitako eskuzabaltasunagatik».

d

Karabana agurtuta, Hassanna Aaliaren asilo politiko eskubidea aldarrikatzeko kontzentrazioa egingo da.

Ume sahararrak hartzeko deia

Bestalde, Hernaniko Udalak martxan jarri du kanpaina, udan Saharako umeak etxean hartzeko.

Informazioa: 943 33 68 02
marijo-m@hernani.eus

www.kronika.eus

Urumeako kronika (2015/02/20)



e

1. ZEIN DA ALBISTEAREN GORPUTZA? a, b, d edo e.

☐

2. AUKERATU IZENBURU EGOKIA. "x" batekin markatu.

- Bihar abiatuko da karabana, 60 tona jakirekin.
- Saharako haurrak, dagoeneko, gaur gure artean daude
- Hernaniko 60 familiak Saharan emango dituzte oporrak.

3. AUKERATU ESALDI ZUZENA. "x" batekin markatu.

- a Ekimenaren antolatzaileak oso haserre daude Hernaniko jendearekin, ☐
aurreko urtean baino janari gutxiago bildu dutelako.
- b Ekimenaren antolatzaileek eskerrak eman dizkiete hernaniarrei, ☐
inoiz baino jaki gehiago biltzea lortu dutelako.
- c Ekimenak Hernanin ez du iaz beste janari biltzea lortu; dena den, ☐
antolatzaileak pozik daude Hernaniko herritarrek erakutsitako
elkartasunagatik.

4. SORTU HITZ BERRIAK, ber- ETA bir- AURRIZKIAK ERABILIZ.

__egin	__antolatu	__idatzi	__eskuratu
__moldatu	__bidali	__jaio	__formulatu

5. BERRIDATZI ESALDIAK, des- ETA ez- aurrizkiak erabilita.

- a. Saharako ohiturak eta hemengoak **ez dira berdinak**. :
*Saharako ohiturak eta hemengoak **desberdinak** dira.*

- b. Arropa hori **ez da egokia** basamortuan ibiltzeko. :

- c. Saharan euria egitea **ez da ohikoa**. :

- d. Basamortuan bizitzea **ez da eroso**.

6. IDATZI FALTA DIREN ADITZAK

Atzo Nayati agur esan (1) (guk), Saharara itzuli behar zuelako. Baina gurasoek esan (2) (niri) ez jartzeko triste, hurrengo udan berriro etorriko delako. Gutaz ez ahazteko, hilero gutun bat bidaliko (3) (nik) eta aurtengo argazkiak ere bidaliko (4) (nik). Horrela, hango familiari erakutsi ahalko (5) (Nayatek).

7. OSATU ESALDIAK ADIBIDEA JARRAITUTA

Adb.: *Nik lagunei udako argazkiak erakutsi dizkiet*

a			zapatak zikindu dizkiguzue.
b			opari bat egin diote.
c			gezurra esan diguzu.
d			arropa bidali diegu.